

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2025eko otsailak 21 - 1344 zenbakia



GAUEKO GIROAREN ILUNTASUNAK



T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Etxeko aseguruak
estimaten duguna
babesten du.

Altzariak,
elektrodomestikoak,
arropa, balio
handiko gauzak...

Sartu eta azalduko
dizugu!

**ETXE
ASEGURUA**

EUKI
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: eukiseguros.com



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Toribito Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
943 201 851

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



BISTA EDER

Hortz Klinika - Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.
Berrituak zu hobeto pautzeko.

**INPLANTOLOGIA &
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel. 943 790 082 info@bistaeder.es

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 16-1.º.º. Eibar
943 20 72 17 - 680 42 28 06
amaia@amaiaodontologia.com

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

108 kalea 2.º.º.

- INDIKATERAPIA
- KIBRE LESIOAK
- Puntzio arazoak / LESIOEN AR
- L-terapiak + BERRERAKOAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ABUZAGUSTA, 20
T.L.F.: 943 53 26 42
ane_mendia@hotmail.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Ginekologia



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tlnoa, 943 20 65 52
www.clinicairazabal.com

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eu



@etakitto



Egun hauetan Neguko Aukeren Azoka egon da Errebal Plazan. Herriko hainbat dendek postua jarri dute bertan eta beste batzuek euren establezimenduetan eskaini dituzte deskontuak. Gainera, Euskeraz Primeran! ekimenak ere postua jarri du merkataritza zein ostalaritzan euskararen erabilera handitzea bilatuz.

eta kitto!
euskararen elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia eta

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakziwoa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Armen esportazioak mugatu ordez, armak egiten dituzten konpainien irabaziak putzen jarraitzen dute Mendebaldeko agintariek. Gurean ere badaude armagintzarekin lotutako enpresak. Batez ere, eraso-hegazkinetako motorrak, tankeetako osagaiak, droneak eta telekomunikazio sistemak egiten dituzte eta urtebetetan %20 igo da sektoreko euskal enpresen fakturazioa. Duela egun batzuk, gainera, sailburu batek babesa erakutsi zion euskal armagintza sektoreari. Izan ere, inoiz baino gehiago, negozio bihurtu dira gerrak. Pentsatzekoa da arma barik ez legokeela gerra-rik edo gutxienez biktima kopurua txikiagoa litzatekeela. Baina, tamalez, armentzat ez dago muga-zergarik.

AMAIA URIBE, kazetaria

Gaur egun nik herria ikusten dut pixka bat ajatua, gastatua; geratu dela desarmatua, diskurtso gabe. Eta orain, selekzio espainolak gol bat sartzen duenean pozten da herri hau. Nik oroitzen dut garai batean euskal jokalariek jokatzen zutela Espainiako selekzioarekin. Baina orduan ez zen pozten Euskal Herria espainiar selekzioaren golekina; orain, ordea, bai.

BENITO LERTXUNDI, musikaria

Piezak faltsuak edo egiazkoak izateaz gain, sarraski arkeologikoa ari dira egiten Iruña-Veleian. Hondeamakinak sartu dira behar ez den lekuetan, eta lau metro zulatzen ari dira lurra. Bestalde, batetik, ez zetorren bat filologoek uste zutenarekin; bestetik, interesen bateratzea ere izan da aferra horretan. Filologoei gaizki zetorkien piezak egiazkoak izatea, eta politikariei Araban euskaraz hitz egiten zela jakitea. Laburtuz, pasatu dira hamabost urte eta, borondate onez eta betaurreko beltzik gabe sartu direnek, frogatu izan dute aurkikuntzak egiazkoak direla. Teknikoki ikusita, ezin direlako horrelako piezak faltsutu.

JUAN MARTIN ELEXPURU, idazlea eta itzultzailea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PENDEJO → Zazpikia, petrala, inuzentea. Gaztelera 'impertinente'. "Ez zaittez izan pendejua".

PENDIZ → Aldats edo aldapa handia. "Alluitz gaiñetik, pendiz garratza alde bixetara".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 23
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 24
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 25
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 26
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 27
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Luis Forner Muga.**
81 urte. 2025-02-12.
- **Felix Arroitauregi Altuna.**
84 urte. 2025-02-13.
- **Petra Navaridas Bustamante.**
79 urte. 2025-02-13.
- **Javier Arizmendiarieta Yarza.**
93 urte. 2025-02-16.
- **Marce Igarza Amesti.**
95 urte. 2025-02-17.



Aurtengo ekimenaren aurkezpena martitzenean izan da, udaletxean. SILBIA HERNANDEZ

UniEncounter bi eguneko topaketa hartuko du Hezkuntza Esparruak

Aurkezpen ekitaldian aurreratu dutenez, bi egunetarako “askotari-ko ekitaldiak antolatu dira, informatikan eta teknologia berrietan interesa dutenentzat”. Topaketa honetan teknologia berriekin lotutako jardunaldiak egiten dira urtero, eta aurtengoa 21. edizioa da. Bi egunetan zehar Eibarko Hezkuntza Esparruak izaera dibulgatiboa, teknikoa eta ludikoa duten jarduerak hartuko ditu: “Aurrekoetan bezala, alderdi ‘serio’ bat izango du topaketak, hitzaldi eta dibulgazio-tailerrekin, eta beste bat ludikagoa, ordenagailuko, bideo-kontsolako eta mugikorrekoko jokoak, lehiaketak eta konpetizioak barne hartuko dituena”. Adierazitakoaren arabera, iaz pro-

batutako jarduera berri batzuk sendotu nahi dituzte eta, aldi berean, formula eta jarduera berriak bilatzen jarraitu: “Aurten, esaterako, *Game Jam* izeneko jarduera, eta ekintzailtzari eta enpresari eskainitako txokoa antolatu dira. Arlo digitaleko proiekturen bat duenarentzat, edo behar teknologikoak dituen edonorentzat topagune izan nahi dugu”. Edozein herritar erakartzeko moduko egitaraua prestatu dute: “Hitzaldi-bloke oso interesgarria izango du, erabiltzaile teknikoagoentzat, eta aldi berean, jarduera irekiak eta publiko guztientzako egokiak”.

Topaketa otsailaren 28an (bari-xakua) inauguratuko da, 17:30ean, Elesky piano-joleak Unibertsitate-

Udalaren laguntzarekin Uni Eibar-Ermua ikastetxeak antolatzen duen Uni Encounter ekimenaren edizio berria hartuko du Hezkuntza Esparruak otsailaren 28an eta martxoaren 1ean, eta hori aurkeztu dute aste honetan, udaletxean egindako prentsurrekoan. Bertan izan ziren Jon Iraola alkatea, Vanesa Hortas Ekonomia-Garapen, Enplegu eta Berrikuntza zinegotzia, Aitor Zumelaga Uni Eibar-Ermua ikastetxeko zuzendaria, Gorka Guenaga Informatika irakaslea eta Alesander Robleño kirol eta aisialdi digitalean espezializatutako aholkularia.

ko antzokian emango duen doako kontzertuarekin. Jarraian, saio eta tailer ezberdinak egingo dira, eta 21:00etatik aurrera gaueko ekitaldiak (mahai jokoak, minijolasen lehiaketak, eta abar).

Drone batekin futboleko jokatzen Hitzaldi teknikoak, berriz, zapa-tuan izango dira, eta egun horretarako laga dute alderdirik ludikoa ere: ordenagailu, bideo-kontsola eta mugikorrekoko joko eta lehiaketak (*Counter Strike*, *League of Legends*, *Valorant*, *Clash Royale*, *FIFA 25*...), mahai-jokoak, esport-jolasak... Gainera joko-gune irekiak egongo dira: “*Drone Soccer* estadio bat izango dugu Flybbleren eskutik; beraz, parte-hartzaile guztiek futbol partida bat jokatu ahal izango dute, doan, drone bat erabiliz”. Parte-hartzea doakoa da, jarduera guztietan. Hala ere, partida eta horrelakoetan parte hartzeko, alde aurretik izena eman behar da, online. Ekimenari buruzko informazio guztia <https://uniencounter.uni.eus> webgunean kontsultatu daiteke.



Pedagogo aholkulari lanpostua betetzeko lan-eskaintza egin du UEU-k

UEUk pedagogo bat behar du, Eibarko egoitzan (Markeskua jauregian) lan egiteko. Eskaintzen duten lanpostua aholkulari pedagogikoa-rena da, lanaldi osoan, martxoan hasteko (amatasun-ordezkapena da, luzatzeko aukerekin). Interea izanez gero, komunikazioa@ueu.eus helbidera mezua bidali, “Erref. Pedagogia” izenburuarekin, eta CV eguneratua atxikitu-ta. Azken eguna astelehena izango da (10:00ak arte). Eskakizunak hauek dira: Hezkuntzaren arloko unibertsitate-gradua, edo unibertsitate-gradua eta lan-eskarmen-tua hezkuntzaren zein pedagogia-ren arloan; ikas-irakaskuntzarako ingurune teknologikoei eta baliabide teknopedagogikoei buruzko ezagutza edota lan-eskarmen-tua; ikas-irakaskuntza testuingurueta-rako eredu pedagogikoei buruzko ezagutza edota lan-eskarmen-tua. Horrez gain, beste ezaugarri batzuk ere baloratuko dituzte, hala nola UEUren proiektuaren ezagutza.

Oinarrizko euskara agiria jaso dute “Integra–Bat Eginez” egitasmoko sei ikaslek

Barixakuan Jon Perez Eibarko Udaleko zinegotziak eta Carlos Abad Armeria Eskolako Ikasle Ohien presidentek *Debarrena Integra–Bat Eginez* programako euskara diplomak eman zizkieten aurten parte hartu duten sei ikasleei. Aurtengoa egitasmoaren 19. edizioa izan da. eta oraingoan ere euskara landu da lanerako oinarrizko formakuntza eskaintzen duen programa horretan. Ekitaldian, euskarara gerturatu eta pixka

bat ikastearen garrantzia azpimarratu zuten: “60 orduko oinarrizko ikastaroaren helburua euskarazko ahozko ulermenean oinarrizko maila lortzea eta euskaraz ohikoenak diren esamoldeak ikastea da, eta modu horretan laneratzea eta gizarteratzea erraztea”. Euskara saioak Eibarko Udaltaren eta Armeria Eskolako Elkartearen arteko lankidetzari esker eman dira, eta aurtengoa AEK-ko irakasleek eman dituzte klaseak.



**Fernando
Ulazia Lejardi**

2. URTEURRENA
2023/02/25

**“Aitxa, aitxitxa:
Zenbat botatzen
degun faltan
zure irrifar ederra”**

- ZURE FAMILIA -



Jose Maria Arana Arrate

2. URTEURRENA: 2023/02/19



**“Fisikoki gurekin
ez bazaude ere,
gure bihotzetan
zaitugu betirako”**

MAITE ZAITUGU
- ETXEOAK -





Kanpotik etorritako guraso talde bat euskara ikasten hasi da Urkizu ikastetxean

Euskal Herrira kanpotik etorri eta bertako hizkuntza ikasteko interesak batu du Urkizu eskolako guraso talde bat. Horrela, astelehenero 20 bat guraso elkartzen dira eskolako liburutegian, euskara ikasteko. Otsailan hasi dira klaseak jasotzen, eta ikasturte amaierara arte jardungo dute. Eskolako zuzendaritzak hartu du bere gain kudeaketaren ardura, eta Udalaren laguntzarekin jarri dute martxan ekimena. Gurasoetako

bat den Nayibak dioenez, “oso pozik eta eskertuta gaude aukera honekin. Erraztasunak eta baliabideak emanez gero, jendea animatzen da. Guretzat oso garrantzitsua da hemengo hizkuntza ikastea”. Bere ustez, horrelako egitasmoak martxan jarzea funtsezkoa da: “Integrazioarako eta hizkuntzaren normalizazioarako ezinbestekoa da euskara ikasteko aukerak eskaintzea, eta jendearengana ailegatzeara”.



Haurren Kontseilua partaidetzarako organoa eratu da

Unicef-en “Haurren Lagun den Hiria” proiektuaren baitan, haurren partaidetzarako organoa eratu da aste honetan. Ikastetxe ezberdinetako 26 ikaslek osatzen dute, eta organo berriak beraien iritzia emateko eta eragiten dieten erabakietan laguntzeko aukera emango die.

15 langabek hartu dute parte fabrikazio mekanikoari buruzko programa batean

Udalak, Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailaren bitartez, eta Armeria Eskola Talentutik Gizarte-Ekonomia Sustatzeko Elkartearekin lankidetzan, fabrikazio mekanikoko prestakuntza eta enplegu-programaren balantzea ezagutarazi du. Programak langabezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden enplegarritasuna hobetzea du helburu. Emaitzen arabera, preskakuntza hasi zuten 15 ikasleetatik 13-k fase guztiak burutu dituzte, baita lantokietako praktikak ere. Eta 13 horietatik bost lanean hasi dira, kontratu batekin (%38,5). Eta lanik lortu ez duten zazpi parte-hartzailek formakuntza jasotzen jarraitzen dute (%54k).



Eibarko eskubaloien dokumentala YouTube-n

Astelehenetik aurrera ikusi ahal izango da Eibarko eskubaloia buruzko dokumentala, Eibar Eskubaloien eta Udalaren YouTubeko kanalean. *Eskubaloia Eibarren* 2022ko abenduan aurkeztu zen, JD Arrateren 75. urteurren eta Eibar Eskubaloien 10. urteurrenaren testuinguruan.



Gizartekintza Saileko taldea indartu eta arretarako ordutegia aldatu dute

Gizartekintza Sailak egunero artatzen dituen kasuak gero eta gehiago direla ikusita, eta eibartarrei behar bezalako arreta eman ahal izateko, bi neurri “oso garrantzitsu” hartu dituzte. Alde batetik, taldea indartu dute: administrazio-profila duten bi pertsona hasi dira lanean administrazio-bulegoan. Gizarte-laneko profila duen beste pertsona bat ere hasi da; horrek erabiltzaileekin lehen elkarrizketak egingo ditu. “Errefortzu hauei esker, murriztu egingo da itxaron-zerrenda eta herriarrei eman beharreko arreta azkarragoa eta hurbilagoa izango da”,

diote. Eta, horrekin batera, arreta presentzialaren ordutegia aldatu dute. Aurrerantzean hau izango da Gizartekintzako administrazio-bulegoko arreta presentzialaren ordutegia: astelehenetik eguenera, 09:00etatik 12:30era. Barixakue-tan itxita egongo da, “administrazio-zereginak egiteko eta telefono bidezko arreta emateko”. Zerbitzuko arduradunek argitu dutenez, gizarte-langileekiko eta saileko beste teknikari batzuekiko hitzorduak ez dira aldatuko, eta aurretiazkoak izaten jarraituko dute. Eta larrialdiak orain arte bezala artatuko dira.

1986an jaiotakoek kinto-jaiia ospatuko dute apirilaren 5ean

1986an jaiotakoek kinto-jaiia egingo dute apirilaren 5ean, “ia 40” urte dituztela ospatzeko. Egun osorako egitaraua prestatu dute: 12:30ean Guridi tabernan elkartuko dira, hamaiketako egiteko. Ondoren talde argazkia egingo dute, bazkaria Unzaga Plaza hotolean, dantza eta jokoak, txaranga eta poteoa... Joan nahi duenak 90 euro sartu beharko ditu kontu korronte zenbaki honetan, izen-abizenak argi azalduta: ES61 1563 2626 33 3268537956.



Neguko Merkealdien Azokak erosle asko erakarri ditu berriz ere

Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) Udalarekin elkarlanean antolatutako neguko aukeren azokak atzo itxi zituen ateak. Oraingo honetan 28 establezimenduk hartu dute parte, batzuk Errebalen postua ipinita, eta beste batzuk beraien saltokietatik. Aurreko edizioetan bezala, Eibarko zein in-

guruero erosleak erakartzea lortu dutela eta, pozik azaldu dira antolatzaileak. Gainera, factoring delakoak dendariei merkealdi-sa-soia prezio berezietan amaitzeko aukera ematen diela nabarmendu dute. Atzo, amaiera gisa, DJ Arnok musikarekin girotutako pintxopote berezia eskaini zuten.



“Bidean galdu ditudan lagunen omenez idatzidut ‘La iltma copa’ eleberria”

ALBERTO SAN EMETERIO • Istorio kontalaria



Tabernen gaueko giroan 30 urtez lan egin ondoren, Alberto San Emeteriok badu zer kontatu gai horri buruz. Denetik ikusi duela esan daiteke, hainbat lagun egin ere, horietako batzuk gaueko giroan galdu direlarik, eta hori guztia papelera eraman nahi izan du ‘La iltma copa’ liburuan. Eleberriak demaseko arrakasta izan du eta 3. edizioa inprimituko duela esan digu. Ego Gain kaleko Fasprint denda eskuratu ahal izango da.

San (horrela esaten diote Albertori) aski ezaguna da barra atzean egiten duen lanagatik, beti onena emateko gogoz. ‘La iltma copa’ liburuan ere horrela egin du, dena eman, maitasun handiz eta joan direnen omenez. Harrituta dago lanak izan duen harrerarekin, “gaindituta”, baina norbaitentzat lagungarria bada, pozik geratuko da.

Barra atzean ikusi zaitugu askotan, irratian entzun ere sarritan, baina zure idazle fazeta ez genuen eza-gutzen. Nola sortu da?

Idazten dudana bigarren eleberria da hau, baina argitaratzen dudana lehenengoa. Konbentzitu egin nautelako kaleratu dut, baina nik ez nuen nahi. Niretzat idatzi izan dut beti. Bidean galdu ditudan lagunen omenez idatzi dut eleberri hau. Laguntasunean, adikzioetan eta hobetzeko grinan oinarritzen da, gaueko aisialdian azken finean. Omenaldi moduko bat egin nahi nuen, baina Mexikon bizi den lagun eta idazle boliviarrak batek liburuaren kontzeptua aldarazi zidan eta formatua aldatu nion, nobela itxura emanaz.

Nolako itxura zuen hasieran?

Nire esperientziak, oroitzapenak, pasadizoak... kontatzen nituen, baina bere aholkuz, historia berdina

kontatuz, beste pertsonaia batzuk asmatu nituen. Beraz, benetako gertakizunetan oinarrituta dago, baina fikziozkoa da.

30 urtez egon zara gaueko aisialdian lanean. Izango zenuen ba zer kontatu.

Urte asko izan dira. Lagun asko galdu ditut adikzioen ondorioz. Gaueko giroak hori du. Alde onak eta txarrak ditu, eta liburua azken alderdi horretan kokatzen da, baina ez kritika batetik, baizik eta berreraikitetik. Denok bizi izan ditugu sasoi batzuk gaueko aisialdian, bakoitzak berea, baina badago irtenbidea. Liburu gogorra da. Irakurtzen duena aipatua sentitu daiteke arloren batean: drogen, jokoaren edo alkoholaren adikzioari dagokionez, maitasun kontu zailetan... Liburuak gainditu egin nau.

Zentzu horretan, zaila izan da idaztea?

Bai. Barrenean nituen oroitzapen batzuk nahasi zaizkit eta ez nuen nahi, baina pausoa eman behar nuela sentitu nuen. “Infernua sufritu duen ororen omenez” dio lehen orriko esaldiak.

Liburua Fasprinten bakarrik eskuratu daiteke, ezta?

Herri mailan saltzea nahi nuen. Ez nuen plataformetan saldu nahi, ezta editorialean bitartez ere. Modu autofinantziatu, autogestionatu eta autoeditatuan eginda



Liburua Fasprinten eskuratu daiteke bakarrik. Momentuz, enkargua egin daiteke hirugarren edizioa publikatu zain. EKHI BELAR

dago. Horregatik, Fasprintekin harremanetan jarri nintzen liburua inprimitzeko eta saltzeko. Lehenengo edizioarekin ehundaka liburu inprimatu genituen eta uste genuen 3-4 hilabetetan salduko genituela, asko jota. Ba egun eta erdian saldu ziren. Bigarren edizioa, printzipioz, plataformetan jartzeko asmoa nuen, baina harrera ona ikusita, oraindik herrian bakarrik saltzea erabaki nuen. Oso eibartarra naizelako eta harro nago gainera, eta liburuak interesa pizten badu, bereziki herrikideentzat izatea nahi dut, gero gerokoak. Ez zait axola mila liburu edo bi saldu, ez dut hori bilatzen, istorio bat kontatzea baizik.

Bertan kontatzen dena Eibarren gertatua izanik, pentsa daiteke eibartarrei interesgarria irudituko zaiela.

Liburu honentzat goiburu hau dut: “Erakutsi, sendatze-ko”. Hau da, historia kontatu nahi dut bertan azaltzen dena jendeak beste ikuspuntu batetik ezagutu dezan. Ez dut inor sendatu nahi, batzuek bizi izandako istorioak kontatu baizik. Gertutik bizi izan ditudan istorioak.

Istorio horiek kontatzeko, nolako egitura du eleberriak? Istorioa ez du idazle batek kontatzen, nik neuk baizik, lehen pertsonan. Eleberria irakurtzen duzunean, zure

“Ez zait axola mila liburu edo bi saldu, ez dut hori bilatzen, istorio bat kontatzea baizik”

begietara begira nagoela konturatuko zara. Ez dut idazten zuk irakurtzeko, hitz egiten dizut. Momentu batzuetan eleberria edo istorio bat kontatzen dut, eta beste batzuetan aholkuak edo iritziak ematen dizkizut. Bi kolaboratzailearen laguntza jasotzeko zorte handia izan dut.

Nortzuk?

Batetik, Jose Antonio Azpilikueta ilustratzailea, Supremendikuteraren egilea. Liburu gogorra denez, arnasmuneak eskaini nahi nituen, ez nuen itogarria izatea nahi, eta bere binetak tartekatu ditut. Gainera, oso eibartarrak dira. Esker onez hartu zuen nire proposamena eta asko lagundu dit. Bigarrenik, Aisa Villavicencio Antelo aipatu nahiko nuke. Lehen aipatu du-

dan idazle eta pedagogo boliviarra da bera. 15 urteko lagun-harremana dut berarekin Internet bitartez, eta 2024an Parisen elkartu ginen. Topaketa horrek dena aldatu zuen. Zirriborroak erakutsi nizkion, irakurri egin zituen eta liburuaren kontzeptua aldatu zidan. “Funtzionatzea nahi baduzu, beste zentzu bat emaiozu”, esan zidan. Horri esker, historia honek helduleku bat duela uste dut.

Nola sentitzen zara liburuak izan duen harrerarekin?

Harrituta. Ez dut asimilatzen, ez dut ondo eramaten. Zerbitzaria naiz et, idaztea gustatzen zaidan arren, ez naiz idazlea. Idatzi dudana edonork egin dezake, nahi izatea da kontua. Argitaratzeko konbentzitu nindute-nean, gutxienez gauza on bat egin behar zela erabaki nuen. Gustatu edo ez, gutxienez landua izatea, egitura egokia edukitzea, eta abar. Poz-pozik nago izan duen harrerarekin.

Izenburua bitxia da: ‘La iltma copa’...

Zer iradokitzen dizu?

Zerbait falta zaiola dirudi. Mozkor batek “la última copa” esan nahi eta ez asmatzea bezala.

Askok pentsatzen dute antzera. Gaueko aisialdia, alkohola, mozkor dagoen norbaitek egin dezake berba horrela... Baina ez. Barbarismo bat da. Hau da, nahi ta gaizki idatzitako berba bat. Liburua irakurtzerako orduan argituko da zergatik dagoen horrela idatzita. Esaldi hori izan zen liburua aurrera ateratzera bultzatu ninduen, bertan omendu nahi izan dudana lagun batena delako.

Bidean galdu dituzun lagunuen omenez idatzi duzula esan duzu, baina baita bizirik jarraitzen duten batzuegatik ere?

Bai, eta gauza bitxi bat gertatu zait zentzu horretan. Liburuan lagun baten historia kontatzen dut eta bere alaba nirekin harremanetan jarri zen orain dela gutxi, liburuako pertsonaia hori bere aita dela jakin gabe. Harreman estua izan genuen bere aitak eta biok, eta infernu batzuetatik iragan zuen. “Infernura erortzea erraza da, irtetea pixka bat zailagoa izango da”, diot liburuan.



“Irakurtzen duena aipatua sentitu daiteke arloren batean: drogen, jokoaren edo alkoholaren adikzioari dagokionez, maitasun kontu zailtan...”

Esan duzu “gainditu” egin zaituela liburuak izan duen harrera onak. Zergatik?

Kritika onak ez ditut ondo asimilatzen. Txarrak bai, prest nagoelako. Eraikitzaileak diren neurrian, noski. Kritika positiboak inoiz ez ditut ondo eraman, kostatu egiten zait. Lehengo egunean neska bat negarrez etorri zitzaidan, liburuak bere inguruko pertsonen oroitzapenak ekarri zizkiolako, eta asko hunkitu zidan, txarto pasa nuen. Liburua irakurleen barrenera heltzen da, euren ahulguneetara, eta moduren batean hori bilatu dut. Sendatzea bilatzen dut, baina horretarako berba egin behar da. Ez naiz gaian aditua, baina bizipen batzuk izan ditut eta agian laguntzeko balio dezakete.



Eibarko Euskaraldiaren Hamaikakoa. Ezkerretik hasita, goian, Soko Baskaran, Simone Begiristain, Jon Alonso, Davide Cerchi, Jol Igartua, Josune Garro, Aitor Muniozguren eta Najiba Benslaiman. Eta, azpian, Helene Otadui, Aresatz Usobiaga eta Mohamed Fadel. SILBIA HERNANDEZ.

Eibarko Euskaraldiaren Hamaikakoa aurkeztu dute

Aurten Euskaraldiaren 4. edizioa egingo da Euskal Herrian, maiatzaren 15etik 25era. Eibarren Akebaik, herriko beste eragile batzuekin batera, Eibarko Euskaraldia antolatzen lantaldea sortu du, antolaketa lanak egiteko. Dagoeneko hiru bilera egin dituzte eta, besteak beste, Eibarko Hamaikakoa zeintzuk osatuko duten erabaki dute.

Azaroan aurkeztu zuten Euskal Herri mailako Euskaraldiaren Hamaikakoa, hau da, Euskaraldiaren enbaxadore izango diren lagunen zerrenda. Eibarrek ere bere Hamaikakoa izango du, eta eguaztenez egin zuten aurkezpena, Eibarko Klub Deportiboan, Euskal Herriko Hamaikako horretako kide den Ana Goitiak bere umorezko bakarrizketa amaitu eta jarraian. Honako hauek izango dira Euskaraldiaren enbaxadoreak gure herrian: Davide Cerchi, Jol Igartua, Aitor Muniozguren, Mohamed Fadel, Jon



Alonso, Aresatz Usobiaga, Josune Garro, Simone Begiristain, Soko Baskaran, Najiba Benslaiman eta Helene Otadui.

Euskaraldirako gazteen plataforma eratu-berrira batzeko deia

Horrekin batera, egitasmoaren helburuen artean, herriko gazteen partaidetza handitzea jarri dute. Asmo horrekin, hainbat gazterekin bilera egin zuten otsailaren 12an, eta bertan Eibarko Euskaraldirako gazte plataforma eratzeko erabaki zuten, "gazteen artean sortu eta kudeatuko dena". Arduradunen berbetan, "herriko 30 urtetik beherako gazte guztiak daude gonbidatuta plataforman parte hartzera. Whatsapp talde bat ere sortu da eta, bertan sartu nahi duenak, QR kodea eskaneatuta egin dezake. Gazte-taldeen arteko bileratxo bat antolatu eta, denen artean, Eibarko gazteria egitasmoa hurbiltzeko egin daitekeenaz eztabaidatzea da asmoa".

“Dependentziaren laguntza publikoek atzerriko langileen esplotazioa finantzatzen dute”

SILVIA CARRIZO FERNANDEZ • Abokatua eta kazetaria



Silvia Carrizo Fernandezek (Malen Etxea emakume migratzailez osatutako elkartearen sortzaileetako batek) eta Merlin Medina Acostak (Andretxeko Berdintasun Zerbitzuak eskaintzen duen zaintzaile eta etxeko langileentzat lan aholkularitza zerbitzuaren arduradunak) solasaldia izango dute hilaren 24an, 18:00etan, Andretxean, 'Etxeko eta zaintzako langileen erresistentzia eta antolakuntza' izenburupean.

Hizlari biak abokatuak dira eta langile horiei buruzko informazioa emango dute, baita etxeko eta zaintzako langileentzako espazio propio bat berriz adierazteko beharri buruzkoa ere, erresistentzia antolatzeke funtsezko elementua dena. Era berean, gai horri buruz elkarrekin hausnartzeko eta eztabaidatzeko aukera egongo da.

Zertaz jardungo duzue Merlinek eta biok Andretxean?

Langile migranteek Gipuzkoan bizi duten egoerari buruz egingo dugu berba testuinguru politiko eta sozialean zentratuz, subjektu hori herrialde honetan nola txertatzen den ikusteko. XXI. mendean hasi ziren emakume hauek Gipuzkoako herrietara iristen eta hemen zergatik dauden komentatuko dugu, zaintzaren inguruko politika publikoak zergatik salbatzen dituzten, eta nola gizarte honek ez duen ulertzen gizakiak eta langileak direla, eta Gipuzkoan zaintzak ezin direla sostengatu milaka emakumeren esplotazioan eta esklabutzan.

Nori zuzentzen zaio solasaldia batez ere?

Hitzaldia irekia da eta edonor joan daiteke. Azken batean, zaintza faltaren arazoak eibartar guztiei egiten die kalte, ez baitago zaintzaren inguruko politika publikorik. Adibidez, 50-60 urteko emakume batek, enpresa

edo fabrika batean lanean dagoena, zaintza behar duten gurasoak izan ditzake eta gizarte honetan zaintzaren ardura familia barruan erortzen da, emakumeengan, edo bestela norbait esplotatzean. Azkenean, langile klaseak ordaindu ezin duen eredu bat onartzen du eta, ondorioz, esplotatzailea bihurtzen da.

Nolako eboluzioa izan du arazo honek azkenengo urteetan?

Hobetzen joan da bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, langileak antolatu egin direlako hainbat elkarte sortuz. Antolatze hutsak ikusgarritasuna eman zion arazoari eta horrek dependentzia politiketara eta Espainiako estatuak eta EAEEK behar izan dituzten beharretara eboluzionatu du. 2024. urtean erregularizazio etapa bat bizi izan zen, gero Dependentziaren Legea etorri zen, ondoren profesionalizazioa, soldata minimoaren hazkundea eman da (maisutasunez, inoiz gertatu ez bezala)... Mugarriak ezarri dira eta lan-baldintzetan hobekuntzak ekarri dituzte, baina oraindik ere esplotazioa egoten jarraitzen du interna moduan lanean jarraitzen dutenengan, ez dutelako euren eskubideen errekonozimendurik, abusuak ematen direlako eta esplotatzaileak euren bizitzaz jabetzen direlako. Hori ez da aldatu oraindik.



Zumaian dagoen Malen Etxearen sortzaileetako bat da Silvia Carrizo Fernandez. MALEN ETXEA

Nolako egoerak eta baldintzak bizi izaten dituzte esplotatuak diren langile horiek? Datuen arabera, etxeko eta zaintzako langile gehienak emakumeak dira eta %80-90 barne erregimenean daude.

Hori da. Hemen ulertu eta onartu nahi ez dena da Gipuzkoako zaintza eredia atzerriko langileen esplotazioan sostengatzen dela eta horregatik funtzionatzen duela. Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) ez du beste formularik. HerriLab, Etxean Bizi eta horrelako programak gezurrak dira. Edozer gauza saldu dezakete, baina oinarriko diagnostikoa arazo garrantzitsu bat dago: etxeetan esplotazio egoeran egiten dela zaintza guztia.

Era berean, gizartea zahartzen doa eta zaintzaren beharra gero eta handiagoa da, ezta?

Zaintzaren beharrak gero eta gehiago dira, baina egia ere bada gero eta langile gutxiago ari direla iristen. Migrazioak jarraitzen duen arren, ez da mende hasierako maila berean gertatzen eta ez ditu ezaugarri berak. Mende hasieran etorri zen belaunaldia zaintzaile moduan jubilatuko da, baina 2019az geroztik etortzen ari direnak paperak lortu ahal izateko hasten dira zaintzaile bezala lanean, euren asmoa gero beste zerbait egitea de-

“Hemen ulertu eta onartu nahi ez dena da Gipuzkoako zaintza eredia atzerriko langileen esplotazioan sostengatzen dela”

lako, beste lan batzuk egiten edo, zaintzaren munduan bada, behintzat beste sistema batzuen barruan (erresiduetan lanean, adibidez, baina ez interna bezala).

Esan bezala, sektore arrazializatua da, esplotatua... Horrek nola baldintzatzen die langileei antolatuta ahal izateko orduan?

Antolatuta daudenak, paperak eduki ala ez, beste edonor bezain ahaldunduta daude euren dena erreklamatzeko. Bestalde, paperik ez duen emakume batek inguruan ehun sozialik, egiturarik edo babestuko duen antolakuntzarik ez badu, ez du ezer; baina paperik eduki ez arren, atzean egitura bat edo babestuko duen elkarte

bat badu, legeak babestu egiten duela badaki (horrela esaten diegulako) eta bere eskubideak zeintzuk diren badaki, indartsu sentitzen da erreklamatzeko, bakarrik ez dagoelako.

Zentzu horretan zuek, Malen Etxean, aitzindariak izan zarete.

Malen Etxeak 20 urte ditu eta den-dena hutsetik egin eta ikasi behar izan genuen. Gaur egun iristen ari diren kideak guk ez genuen zerbait aurkitzen dute, eta hori asko aitortzen eta baloratzen dute.

Gauza zehatzetara joanda, gaur egun zeintzuk dira etxeko eta zaintzako langileen eskaera nagusiak?

Estatu, autonomia erkidego edo probintzia mailako eskaerak daude. Probintzia mailan zentratuz, Gipuzkoan arazo serioa dago. GFA-ren zaintza politiken ondorioz, dependenziaren laguntza publikoek atzerriko langileen esplotazioa finantzatzen dute. Beraz, GFA-k dependenziaren diru-laguntza laguntzaile pertsonalak kontratatzearekin lotzen ez jarraitzea eskatzen dugu. Gainera, profesionalizazioa eskatzen dute. Ba ezin daiteke izan zaintzaile profesional batek erregimen bereziaren barruan lan egiten amaitzea soldata minimo baten truke, esplotazio egoeran eta GFA-k hori finantzatzea. Hori lotsagarria da. Diputatu Orokorra eta mundu guztia lotsatuta egon beharko lirateke. Hori da Gipuzkoak duen gai potoloena.

Arduradunei arazoa planteatzen zaienean, nola erantzuten dute?

Bakoitzak ahal duen moduan erantzuten du, baina dagoeneko ez dute non ezkutatu. Guk arazoaren berri ematen dugu, baina EH Bilduk edo Podemosek ez badute gaia aldarrikatzen eta Diputatu Orokorri gauzak planteatzen, PNV-k ez du egingo. Eusko Jaurlearitzako kontseilariarekin berbetan, berak arazoa dagoela onartzen du, eta esaten digu arazoa Gipuzkoan dagoela. Gipuzkoan bakarrik gertatzen da hau, ez beste inon. Bizkaian, adibidez, etxerako zaintzaile bat kontratatu nahi baduzu, enpresa batera deitu dezakezu, baina ezin duzu erregimen orokorrean kontratatu dependenziaren laguntza justifikatzeko.



“Gizarte honetan zaintzaren ardurak familia barruan erortzen da, emakumeengan, edo bestela norbait esplotatzean”

Azken urteotan zaintzaren inguruko kontzientzia zabaldu egin da, baina era berean, aipatu duzun bezala, “langile klaseak ordaindu ezin duen eredu bat onartzen du eta, ondorioz, esplotatzailea bihurtzen da”. Beste alde batera begiratzen dugu?

Teoriaren eta praktikaren artean alde handia dago. Normalean, jendeak egun batetik bestera egin behar dio aurre zaintzaren arazoari. 60. hamarkadan jaio direnek, gaur egun 70 urteak gertu dituztenek, kasu askotan ez dute euren zaintzaz arduratzeko gai izango den familiarik. Beraz, adin horretakoak eta 50-60 urte dituztenak arduratuta egon beharko lirateke euren zahartzarora nolakoa izango den pentsatzen.



JESUS GUTIERREZ

400 lagun ilunpean

Urtarrilaren 30ean itxi zen Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrena, justu “Deporrek” 101 urte bete zuen egunean. Urtebete lehenago hasi, 2024ko urtarrilaren 30ean, eta 2025eko urtarrilaren 30ean amaitu den tarte hori hainbat eremutako aktibitatez beterik izan dugu. Hori baita entitate horren ezaugarrietako bat, kirola eta kultura batzearena, kirolak betidanik erreibindikatzeko duena baina, aldi berean, zaila dena kirol klub batean lotuta ikustea. Egitate hori hobeto ulertuko dugu 1924ko testuinguruaz hausnartzen badugu, orduko Eibarko gizartearen kezkei erreparatuz. Orduko “Deporra” sortzerakoan, mendia (alpinismoa deitzen zuten), txirrindularitza eta atletismoa izan ziren abiapuntu, urteen poderioz beste kirol -eta baita kultur arloko- hainbat aktibitate gehituko baziren ere klubean.

Guztiz asmatu zen mendeurrena hasteko Urko argizatuta ikusi ahal izan genuen irudi ikonikoarekin. Eta itxierarako irudiz eta edukiz indar handia zuen beste aktibitate bat prestatu zen. 2024an Urkora igo bazen bera argiztatu eta irudi hori Eibar osotik ikusi ahal izateko, 2025ean mendeurrena ixteko ekimen harekin lotu nahi izan da. Horregatik, oraingoan argia Urkotik Eibarrera jaitzi da. Klubeko kide batzuk Untzagara heldu ziren euren frontalak piztuta zirela eta han zituzten zain beste lauhun lagun, modu antolatuan eta bakoitza argi baten jabe zela “Deporren” ezkutua osatzeko prest. Goiko irudiek Eibarko “bihotzean” sortutako irudi paregabeena eskaini zuten, ondoren “Egun da Santimamiña” abestu eta eskutik helduta Klubaren egoitzaraino joateko “Ikusi mendizaleak” entonatzeko. Behin hara helduta, bi bertso eta beste bi abesti entzun ziren jaiarekin eta ospakizunarekin jarraitzeko. Sustraiia, esentzia, konpromisoa eta iragana eta etorkizuna lotzen dituen herriko kirol entitate dekanoa bere bigarren ehunurtekoan sartzen da, lehengo bidetik, Eibarko bizitza hobetzeko proiektu berriez beteta.

“Sustraiia, esentzia, konpromisoa eta iragana eta etorkizuna lotzen dituen herriko kirol entitate dekanoa bere bigarren ehunurtekoan sartzen da”



Mozorrotzeko sasoia hasiko da bihar koko-dantzekin

Kezka Dantza Taldearen koko-eskearekin eta koko-dantzekin hasten dira Eibarko Aratosteak. Zapatu goizean, 08:30ean, Errebalen elkartu eta handik herriko baserrietara joaten dira, dantzan eta giro alaian, Aratosteen magia herri guztira eramanez. Bihar izango dugu zita koko-marruekin, datorren astean biziko dugun jaiaren aurrekari.

Errebalen lehen koko-dantza egingo dute 09:00etan eta, ondoren, koko-mokoak Aginako eta Mandiolako baserrietatik ibiliko dira honako orduategiari jarraituz: Oregizar (10:00), Arandoaurte-na, Arandobarrena, Arandoguena eta Arandoetxeberri (11:00), Aginagañekua (12:00), Aginako plaza (12:30), eta 13:30etik 14:00etara Mandiolako Mirafloresgoikoa eta Milatxori baserriak. Baserritarrek ortuko produktuak, hamaiketakoak edo dena delakoa eskainiko dizkiete, eta Kezkakoek dantza egingo dute.

Arratsaldean, 18:45ean, Toribio Etxebarria kalean, Klub Deportiboaren aurrean, koko-mokoak elkartuko dira eta koko-dantzak eta kantuak eskainiko dituzte Mauxitxa txarangak lagunduta. Kalejira egingo dute Toribio Etxebarria, Zuloagatarren, Fermin Calbeton eta Untzagan barrena, berriz ere Toribio Etxebarriara itzultzeko, eta 21:00etan Deportivo aurrean azken koko-dantzak eta kantuak eskainiko dituzte. “Ohi bezala, arratsaldeko kalejiran parte hartzea irekia da”, diote Kezkakoek.

Eibarko Aratosteek badute berezia egiten dutenetik ere, Kezka Dantza Taldekoen esanetan: “Eguen Zuriko kontuak eta aldaerak esaterako, Eibarren propio sortutako koplekin”. Bestalde, koko-dantzetarako “Toribio Etxebarriaren eske-kantuak erabiltzen ditugu, hor jasotzen den espirituari eusteko”, euren esanetan. Hemendik kanpo ere, gure herriko koko-dantzek izan dute oihartzuna, eta baita adituen goraiamenak jaso ere. Antxon Agirre Sorondo etnografoak berak laudorioak egin zizkien Eibarko Aratosteei. Iazkoetan Thierry Truffaut antropologo baionarra izan zen gurean eta, egiturari erreparatu, “jasotako funtsaren arabera eredugarria” zela aitortzeaz aparte, azken Gabon postaletarako Eibarko koko-dantzen irudia erabili du.

Eguen Zuri eta Kaldereroak

Eguen Zuri herriko eskolen kalejiraren eguna izan ohi da, baina aurten eskola publikoen parte-hartzea zalantzan dago, hezkuntza publikoan greba deituta dagoelako egun horretarako. Ziur dena, ostera, gero egongo den jaia da. 17:00etan hiru ekintza hasiko dira: batetik, Jainaga eta Narbaizak kalejira egingo dute Urkizutik Untzagaraino; bigarrenik, Liskerrek erromeria eskainiko du Untzagan; eta hirugarrenik, Untzagan ere, tailerrak egingo dira. Bestalde, 19:00etan, moztro lehiaketa egingo da Galiziako Etxean.

Aratoste Barixakuan kaldereroen kalejira egingo da 20:00etan, eta 20:30ean aratosteetako ETB-ko 'Ztanda' saioan demaseko arrakasta izan duen Jon Alonso musikari eibartarrak pregoia emango du Klub Deportivoaren lehiotik, Deporrek eta ...eta kitto!-k antolatuta.

Asteburu bete-betea eta agur Aratosteei

Aratoste Zapatua egun osoko jaia bihurtu da azken urteotan eta egun osorako egitaraua prestatu dute hori horrela izan dadin. Eguerdian 'Rock kalean' ekimena eskaintzeaz gain, koadrilek kalejira egingo dute Ustekabe eta Sin Juicio fanfarreekin. Bertan parte-hartzeko, Udalaren webgunean dagoen formularioa bete beharko da hilaren 24a baino lehen. Arratsaldean, puzgarriak jarriko dituzte Untzagan, txokolatada egingo da, umeentzako berbena eskainiko du Mugi Panderoak, Latuna Bando txarangarekin kalejira egongo da eta gauean Mugi Panderoak dantzaldia eskainiko du. Gainera, photocall-a jarriko dute Untzagan.

Aratoste Domeka goizean Usartzako txistulariek kalejira egingo dute eta arratsalderako umeendako Playback Lehiaketa antolatu du ...eta kitto!-k. Gero, DJ Arnok musikaz girotuko du Untzagako karpa.

Ohikoa den bezala, martitzenean esango diegu agur Aratosteei Sardinaren Entieruarekin, Jainagaren trikitilari eskolakoek girotutako ekimenean.

Tabernen moztroren lehiaketa

Aratosteetan ondoen apaindutako tabernaren lehiaketa ere jarriko dute martxan. Izen-ematea Udalaren webgunean egin ahal izango da hilaren 26ra arte. Gero, epaimahaia hilaren 28ko arratsaldean pasako da tabernetatik.



Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izaten da Aratosteetan giro paregabea sortzeko



Goian, kaldereroen dantzak. Behean, koko-marruak herriko baserri batean.

ARATOSTIETAKO GIRORIK ONENIAN!



Urrutiko Mendebaldeko Pistolerak
begia non... ...bala hantxe bertan!

TOPA-LEKU
taberna

BANAKA
BAR.

Edozertaz
mozorrotuta ere,
dantzan egizu gurekin!

FAUSTO
kafetegia
Karmen kalea, 1

CAFE EIBAR
Etxeberria, 12

Ondo pasatzeko aukera bikoitza
ESKU ONENETAN!

**INDIOA
IZAN EDO
BAKEROA,
HEMEN
AURKITUKO
DUZU BEHAR
DUZUN JENEROA**

**KALAKA ETA
BUENOS AIRES**

Aratoste
bikainenak!
Zatoz!

ERREBAL PLAZAN **LUSAI**

GASTROTEKA **BASA**

Une zoragarriak
bizitzeko parada

JURASSIC PARK

ABENTURA
BENETAKOA!

GURIDI
taberna

Globalandia

Puxikez
betea!

Aratosteakako koktelak
AMETSA
Gin Bar



izan **AZKENA**
izan lehena

buruan
izango
duzun
gogokoena

AZKENA

KATU

k a l e

GUREAN GIROA...

Laurel
&
Hardy
Pub

...ziurjatuta dago!

Gure Leku
Eibar

Ah! Heldu dira!
BIKINGOAK!!!





ONDO PASA!



Ondo pasa Aratosteetan!

BAR AMESTI

ZIRIAKO AGIRRE N°3
AMANA

Etorri gurera!

Ondo pasa!

DIANA
JOLIEGAS, KOE! CAZA Y PEJUN

ZAI-ZOI

EZDOK LABADERUA
KM.0 TABERNA

BITTOR SARASKETA, IBEHEA

GREASE

JAIKY

ONDO PASA!

EGIN JOKU
gure Casinoko jai
giro bikainean!

ARATOSTEAK EIBARREN 2025



Aldaketa SD Eibar taldearen aulkian

Joseba Etxeberriari amaitu zaizkio entrenatzaile lanak Hypermotion Ligan jokatzeko duen taldean. Bere lekukoa Beñat San Josek hartuko du, 2026ra arte sinatutako kontratuari jarrituz; hau da, denboraldi hau amaitzeko geratzen den zatirako eta hurrengoaren osorako. San Jose SD Eibar ondo ezagutzen duen Iban Fagoagarekin (bigarren entrenatzaile lanak egingo ditu) eta Gaston Lloverasekin (prestatzaile fisikoak) etorri da.

Azken 15 urtetan Eibarrek kargutik kendu duen estreinako entrenatzailea da Etxeberria. Garaipenik gabeko bi hilabeteko emaitzen bolada txarraren ondotik etorri da erabakia. Aurreko denboraldian ailegatu zen Etxeberria Eibarrera eta guztira 75 partidu ofizialetan izan da Eibar taldeko entrenatzailea. Karguan eman zuen aurreneko denboraldian 1. Mailara igotzeko fasea jokatzeko sailkatu zuen taldea. Denboraldi honetan, berriz, Ligako 27 jardunaldi jokatu eta gero, sailkapeneko 17. postuan dago Eibar, 33 punturekin: 9 garaipen, 6 berdinketa eta 12 porrot izan ditu Ligan. Armaginek bost puntura dute jaitzierako postuak.

Elgoibartarrarekin batera, bere ekipoa osatzen duten Jorge Perez bigarren entrenatzaileak eta Luis Prieto prestatzaile fisikoak ere lagako dute taldea. Etxeberriak sare sozialen bidez agurtu ditu zaletuak eta kluba, eta eskerrak eman die "eskaini didaten babes guztiagatik eta eurekin izan dudana harremanagatik".

Beñat San Jose donostiarra entrenatzaile lanetan egindako ibilbide gehiena Amerika aldean egin du. Realaren beheko taldeetan hasi bazen ere, Saudi Arabian debutatu zuen teknikari gazteena izan zen, bertan Champions Cup-a irabazteko 2013an. Eta 2015-16an Txileko Deportes Antofagasta zuzendu zuen; eta hortik Boliviara jo zuen, han Apertura eta Clausura Torneoak irabazteko San Jose Bolivar taldearekin. Behin Txilera itzulita, titulua irabazi zuen Universidad Católica taldearekin. Europara itzulita, KAS Eupen talde belgiarraren inoizko sailkapen onena eskuratu zuen. Eta 2021ean Ameriketara bueltatu zenetik, Mexikoko Mazatlan, Boliviako Bolivar taldea berritoki eta Mexikoko Atlas zuzendu izan ditu, azken hori Jalisco Guadalupe herrikoa.



Beñat San Jose, Palacios eta Gorostizarekin aurkezpena.

Erregularrena hiru urtetan

1. Mailan zazpi denboraldi egin eta gero, 2. Mailara jaitsi zenetik hiru denboraldi egin ditu Ipuruako taldeak eta, hirurak batuz, ez da talde erregularragorik izan bertan: erregularra, baina lan zailenean, gorenko postuei dagokienez. Denboraldi hau izan da ezberdina aurrekoekin parekatuz: talde goleatzaileena izatetik gol gutxien sartzen dutenen artean kokatuz, gol gutxien jasotzetik ia partidu guztietan jasotzera pasatuz, etb. Taldeari kostatzen ari zaio beste neurri bat ematea. Horrek eraman du klubeko zuzendaritza azken erabaki hori hartzera; beste klubekiko hain desberdina izaten zuen jarrera alde batera laga eta denboraldia amaitu baino lehen teknikaria kargutik kentzera. SD Eibarrek 1. Mailan debutatu zuenean ere, maila galtzera eraman zuen bigarren itzuli kaskarra egin arren (gero bulegoetan lortu zuen 1. Mailari eustea), zuzendaritzak Garitano orduko entrenatzaileari eutsi zion amaierara arte.

Etxeberriaren aurretik, Angel Viadero izan zen, 2009-10 denboraldian, SD Eibar-ek kargutik kendu izan duen azken entrenatzailea. Orduko apirilean Manix Mandiola eibartarrak hartu zuen haren tokia eta 2012ra arte iraun zuen karguan. Ondoren Gaizka Garitanok hartuko zuen erreleboa, 2015era arte. Jose Luis Mendilibar izan zen hurrengoa (aurretik beste denboraldi bat egin zuen, 2004-05ean, Eibarrekin, 1. Mailara igotzeko aukerarekin azken jardunaldira arte) eta, 2021era arte maila gorenean egon eta gero, taldeak 2. Mailan egindako azken fruiturik gabeko beste hiru denboraldi bikainak Garitanoren (aurreneko biak) eta Etxeberriaren (azkena) esku izan dira.

Oraingoan, Arrateko Ama Birjinaren laguntzarekin batera, San Joseren eskua ere izango du taldeak.

Eibar Eskubaloiko talde nagusiak garaipenera ohitzen doaz

Aurreko asteburuan 1. Nazional Mailan jokatzeko duen gizonzkoen taldeak garaipen argia lortu baitzuen Donostian Egiaren aurrean (21-33), eta bide horretatik jo zuelako Ohorezko Zilarrezko Mailan jokatzeko duen emakumezkoenak, kasu horretan apuro gehiagorekin, Santanderko Sinfin taldeari irabazten jakin izan zuelako (21-20).

Ipuruan jokatuak emakumezkoen partidua tentsioak eta borrorak markatu zuen azken segundora arte. Atsedendian markagailua

eibartarren aldekoa bazen(9-7), amaiera bihotzekoak emateko modukoa izan zen. Azken segundotako Lucia Zubizarretaren golak partidua erabaki zuen, harmailetako euforia piztuz.

Gizonzkoen Mek taldeak, bestalde, hasieratik ireki zuen tarte Egian eta, lehen 10 minutuetan 2-9ko emaitza sendoa lortuz, atsedendira 7-19koarekin erretiratu ziren. Bigarren zatiko kontrol lanarekin nahikoa izan zuten neurketa bereganatzeko, unea probetxatuz



pistan minutu asko pilatzen dituztenei atsedene emateko.

Casinokoek bina berdindu zuten Alcobendasekin billar partidari

Eibarren jokatuak hiru banda-ko 2. Nazional Mailako seigarren jardunaldiko neurketan, etxeko taldeak ezin izan zuten beste garaipen bat eskuratu karanbola baten erruz. Ricardo Roblese eta Ricardo Ereñak euren partidak irabazi zituzten bezala, Sergio Boulosa eta Jorge Molinosek galdu egin zituzten bereak, azken kasuan karanbola bakarrarengatik izan bazen ere. Fase hori amaitzeko bi jardunaldi-



ren faltan, Casino Artista Eibarreseko taldeak hirugarren postuan jarraitzen du sailkapenean.

Bestalde, asteburu honetan gure herriko klub horrek antolatzen dituen txapelketetako txapeladunen afaria egingo dute. Casinoak hartuko duen ekitaldi horretan izango dira Javi Casaña (xakea), Jaime eta Txutxo (tute), Aldazabal eta Gallas (mus), Aritz Zabala (billar 2) eta Ricardo Ereña (billar 1).

FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EREÑAKO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

DEPOR TABERNA
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporreibar.com

- EGUNEKO MENUA astehenetik ostiralera 13:00etatik 15:00etara
- ASTEBURUETAN razioak, otarteak, plater konbinatuak...
- GOSARIAK egunero
- TALDEENTZAKO menuak egiten dira

Arrate inguruak ondo ezagutzeko Itzulia

Euskal Herriko Itzuliak ibilbide gorabeheratsua eta gogorra izango du berriro ere, Eibarko OCETA taldeko antolatzaileek prestatu dutenaren arabera. Apirilaren 7an Gasteizen hasiko den proba 12an amaituko da gure herriko Toribio Etxebarria kalean. Tartean, txirrindulariek 870,20 kilometro egingo dituzte; gorabeheratsuak eta gogorrak izango dira horietako asko, 23 mendatetara igoko baitira. Azken ekitaldietakoen antzeko ibilbidea da; horregatik, seguruenik gurean jokatu den azken etapara arte erabakiko ez dena.

Buesa Arena barruan hasiko da Itzulia, eta ikusleek harmailetatik ikusi ahal izango dituzte txirrindulariak irtenen; inoiz ez da halakorik egin Itzulian. Buesa Arenaren kanpoaldean amaituko da. Erlojupeko ia laua da eta espezialistek eta faboritoek lehen aldeak egin ditzakete. **Bigarren etapa** Nafarroan jokatuko dute: Iruñetik Lodosara joango dira txirrindulariak. Etaparik luzeena izango da, ia 200 kilometrokoa, baita zailtasunik gutxiena duena ere, ihesaldiren edo esprinten bat egoteko aproposa. **Hirugarren etapa**, berriz, Zarautzen hasiko da eta Beasainen amaituko. Oso gogorra eta gorabeheratsua izango da, zazpi mendaterekin. Bi nabarmentzen dira azken 50 kilometroetan: Gaintza eta Lazkaomendi. Laburrak dira, baina oso gogorrak, %20 inguruko aldapak dituzte eta. Beasainen hasiko den **laugarren etapa** Markina-Xemeinen amaituko da, 169,6 kilometro egin eta gero. Bezperakoa bezala, oso etapa gogorra da: zazpi mendatetara igoko dira; nabarmenena ondo ezagutzen dugun Izuaz izango da, azken kilometroetan. Ez dira igoko ez errepide nagusitik, ezta Krabelinetik ere, Matsariako poligonotik baizik. Bidea oso estua eta gogorra da, %20ko aldapak baitaude. Bi egun oso gogorren ostean, samurragoa izango da Gernikan amaituko den **bosgarren etapa**: 172,4 kilometro. Pello Bilbao gernikarrak lagundu die antolatzaileei etapa diseinatzen. Lau mendatetara igo beharko dute, eta azken kilometroak oso bihurriak dira. **Azken etapa**, berriz, urteotako klasikoa da: Eibarren hasi eta amaituko da, 153,4 kilometro egin ondoren. Zazpi mendate daude, horietatik hiru lehen mailakoak. Aurten hasieran igoko dute Krabelin, eta bitan Trabakua. Horrez gain, Gorlaren orde, Karabieta igoko dute. Etapa horretan zehaztuko da, seguruenik, nor izango den irabazlea.



Itzulia Basque Countryaren azken sariak Untzagan banatuko dira.

Gertutik jarraitzeko aukera

Izua edo Ixuako gaina bitan pasako dute oraingoan, Markina-Xemeinen amaituko den laugarren etapan eta Eibarren amaituko den azkenean. Trabakuara ere bi igoera egingo dituzte, biak azken etapa horretan eta hori izango da 2025eko Itzuliko azken mendatea. Bigarren igoera eginda beherantz joko dute txirrindulariek, Mallabitik eta Ermutik pasatuz, Eibarren helmugaratu arte.

Arraten etaparik amaituko ez bada ere, inguruan geratu barik ibiliko dira etapa horietan. Horrela, Eibarko azkenekoaren hasieran Krabelingo gaina bilatuko dute Azitaingo poligonotik ekingo dioten igoeran. Horko lehen bi kilometroak exigenteak dira (%8 eta %9 pasatuta), gero errepidea estutu eta baserrien artean sartzeko. Asfaltotik hormigoira pasatuta, aldapak gehiago altxatuko dira, %22ko puntuetara iristeraino (bataz beste, 3. kilometroak %13,5 du, eta 4.ak %12,4). Beraz, lau kilometro horietako bataz bestekoa %10,8koa da. Behin Santutegira helduta, jaitsierari ekingo diote txirrindulariek. Etapa horretako azken tartean berriro igoko dute Arrateko bidetik, baina goraino joan beharrean Ixuara desbideratuko dira gero.

Bi egun lehenago, Markinan amaituko den egueneko etapan, Ixuara joateko, ohiko errepidetik joan beharrean, Matsariatik igoko dute, igoera berezia bezain gogorra egingo zaiena. Aurretik ere egin izan dute noizbaiten eta bost kilometro eta erdi izango dituzte hor zain, %8,38ko bataz bestekoarekin. Lehen lau kilometroetan (hor %11 pasatuta) honakoekin egingo dute topo: lehenengoan %5,8, bigarrenen %15,4, hirugarrenean %14,1 eta laugarrenean %8,9%, hurrenez hurren. Eta hormigoia presente dela. Aukera bikaina goi mailako txirrindularitza aurrez aurre ikusteko.

Nortzuk jokatuko dute Astelenako etziko estelarra?

Ale hau atzo eguerdian inprentara bidean zihoala, oraindik ez genuen horren berririk. Atzo gauean Tolosan erabaki behar zutelako Astelenako partidua nagusian jokatu duen lehenengo bikotea eta gaur Zornotzan gauza bera egingo dutelako bigarrenarekin. Binakako txapelketa nagusiko lehen fasea amaituta, hirugarren eta laugarren postuetan sailkatutakoan arteko lehia izango zuten atzo Tolosan (Artola-Mariezkurrena vs Elordi-Zabaleta) eta gaur Zornotzan bosgarren eta seigarren postuetan sailkatutakoan arteko norgehiagokatik (Jaka-Imaz vs Peña-Albisu) irtengo da bestea. Tolosako irabazleak zuzenean sartuko dira finalerdietan eta Zornotzako galtzaileak txapel-



ketatik kanpo geratuko dira. Beraz, Astelenako domekako jaialdiko partidua nagusian Tolosako galtzaileek eta Zornotzako irabazleek neurtuko dituzte indarrak. Errekuperatzeko denbora askorik gabe, baina horko irabazleek sari potoloa jasoko dute: finalerdietarako sailkapena. Jaialdia hasteko, Agirre-Lizeaga eta Exposito-Aranguren bikoteen artekoa dago programatuta; eta domekakoarekin amaitzeko, Mata-Aldabe eta De la Fuente-Erosarberen artekoa.

Duatloi denboraldia hasi dute Jaz Eibar Triatloi Taldekoek

Aurreko asteburuan abiatu zen gurean duatloi denboraldia, Zornotzan jokatuako taldekako erlojupeko modalitateko Euskadiko duatloi esprint txapelketarekin. Bertan parte hartu zuen Jaz Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak maila bikaina eman zuen, gure herriko seikoteak 17. postua eskuratu baitzuen 50 talde baino gehiagoren artean. Jokin Amorrosta, Iker Gokoetxea, Roberto Gartzia, Ugaitz Gartzia, Iñigo Gaston eta Jonatan Alustizak osatu zuten taldea.

Hurrengo egunean, domekan, distantzia ertaineko duatloia jo-



JAZ-ekoak Zornotzako duatloi esprintean.

katu zen Vianan eta hor ere bikain jardun zuten eibartarrek: Pablo Zabalak hamargarren postuan amaitu zuen, Alex Higuera 20. ean eta Aitor Fernandez 78. postuan helmugaratu zen.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

SD EIBAR - Racing Santander (bihar, 16:15)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Alaves B - SD EIBAR B (etzi, 12:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Osasuna B - SD EIBAR B (bihar, 12:15)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

SD EIBAR C - Derio (etzi, 12:45)

Emakumezkoen Euskal Liga

SD EIBAR C - Basauriko Kimua (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

Ordizia - URKI (bihar, 17:30)

EIBARTARRAK - Idiazabal (bihar, 18:00)

Erregionaleko 1. Maila (Kopa)

Antzuola - URKI B (bihar, 16:00)

Jubenilen Ohorezko Maila

Vasconia - SD EIBAR (bihar, 17:00)

Jubenilen Nazional Liga

SD EIBAR B - Real Sociedad B (bihar, 12:30)

Jubenilen Euskal Liga

Loyola Indaucgu - URKI (etzi, 18:00)

FUTBOI-ZALATUA

• Malape Taberna - Baserri (bihar, 09:00)

• Garaj. Garcia - Adahi Etxegi (bihar, 10:30)

• Kalaka Buenos Aires - Xania (bihar, 10:30)

• Bar Marem - Limp. Rueda (bihar, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Ekin-Oria (bihar, 18:15)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Aiala Zarautz - MEK EIBAR (bihar, 19:30)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Utebo (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Urdaneta (etzi, 12:00)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Tolosa (etzi, 10:00)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

EIBAR RT - Flor de Escocia (bihar, 17:00)

Gizonezkoen Euskal Ligako 1. Maila

Urgozo Zornotza - EIBAR RT (bihar, 18:00)

Emakumezkoen Euskal Ligako 1. Maila

Gipuzkoa - ARRASATE-EIBAR (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Erraide Irun - ART. JUANTXO (bihar, 18:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Ostadar - EIBAR B (bihar, 14:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen Euskal Herriko 1. Maila

WP 9802 - URBAT B (bihar, 15:45)



Luisa Rodriguezek irabazi du Euskeraz Primeran!-eko zozketa

Neguko merkealdien azokan gasatzeko 100€-ko erosketa-txartela irabazi du Luisak. ...eta kitto! Euskara Elkarteak azokan izan da aurten ere Euskeraz Primeran! ekimenarekin eta, hiru egunez bertan izan



eta gero, atzo eguerdian zozketatu zuen txartela dinamika erraz batean parte hartu duten herritarren artean. Erosketen testuinguruan euskararen erabilera sustatzea du helburu Euskeraz Primeran! kanpainak. Horretarako, egunotan mahaira hurbildu direnek jolas batean parte hartu dute, guztien artean horma-irudi koloretsua osatuz. Hurbildu diren guztiek jaso dute Euskeraz Primeran!-eko poltsa eta, gainera, EM-GIk emandako erosketa-txartelaren zozketan parte hartzeko aukera izan dute. Oraingoan, argazkiaren erdian ikusten duzuen Luisa Rodriguezentzat izan da saria. Dendetan eta ostalaritzan euskararen erabilera areagotzea lortu nahi da ...eta kitto!-ren kanpaina honen bitartez eta urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditu; horien artean da merkealdien azoka, negukoak zein udakoa.

Barixakuak Jolasian Urkizun izango da gaur

Joan den barixakuan Torrekuako parkean izan ondoren, Urkizukoak hartuko du gaur Barixakuak Jolasian ekimena. 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak antolatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak 17:00etatik 18:00etara. Hurrengo saioa martxoaren 7an izango da Txaltxa Zelain.



Kalean da otsaileko Txikitto! aldizkaria

Gaur bertan jaso dute eskoletan Txikitto! hilabetekariaren otsaileko alea. Aratosteen atarian, mozo-roi buruz galdegin diegu Iturburuko ikasleei, eta Arrateko Andra Mariko Malika amama bi ilobekin elkartuko dugu hainbat galderari erantzuteko. Horrez gain, ez dira falta ohiko denborapasak, txistek, errezetak, ipuina edo bitxikeriak.



Play Back lehiaketako epea astelehenean itxiko da

Aratosteetan ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatzen duen Play Back lehiaketan izena emateko azkeneko eguna hurrengo astelehena, otsailak 24, izango da. Untzagako karpan egingo da lehiaketa martxoaren 2an, domeka, 17:00etan hasita. LH 5. eta 6. mailetako ikasleek har dezakete parte lehiaketan. Taldeak, asko jota, 6 lagunez osatuko dira eta talde bakoitzak abesti bakarraren koreografia egingo du. Abestiak euskaraz izango dira, MP3 formatuan grabatuko dira eta, taldearen izena, ikastetxea, abestia eta parte-hartzaileen datuekin batera bidaliko da banaketa@etakitto.eus helbidera. Hiru sari banatuko dira, mozorro, interpretazio eta koreografia onenari, baina inor ez da esku-hutsik geldituko. ...eta kitto!-ko antolatzaileek adierazi dute parte-hartzaileek 16:30erako egingo beharko dutela Untzagan.



Gantxoak egiten arratsalde pasa ederra igaro zuten Illunabarrian programaren barruan

...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatzen duen Illunabarrian programak eskulanei eskaini die tartea otsaileko saioan. Laura Albistegi (Gigil) bitxigilearen eskutik, ilera-ko gantxoak egiten ikasteko saioan hartu zuten parte dozena bat lagu-

nek eta, material ezberdinak erabiliz, gantxo politekin pozarren joan ziren etxera. Bigarren aldiz izan da Laura Illunabarrian programan saioa eskaintzen; aurrekoan lepo-koak nola egin irakatsi zien taile-rran parte hartu zuten.

Aratoste pregoilaria

Bestalde, aratosten barruan, Aratoste Pregoia ere antolatuko du eta kitto!-k. Barixaku Erregularrean izango da, otsailak 28, Kaldere-roen Kalejirarekin bat eginez. Jon Alonso abeslari ezagunak izango du aurten aratosteetako pregoia irakurtzeko ardura. Kaldereroak 20:00etan irtengo dira Urkizutik eta, Depor parera iristen direnean, orduan irakurriko du Alonsok pregoia Deporreko balkoitik bertatik.

“Sortzaile izatearen egoera ez da aldatu; prekario izaten jarraitzen dugu”

YOLANDA ARRIETA • Idazlea



Emakume idazlearentzat gela propioa aldarrikatu zuen orain dela ia ehun urte Virginia Woolf idazleak. Yolanda Arrieta idazleari (Etxebarria, 1963), baina, motz geratzen zaio gela bat eta, “zahartzaroaren umezaroan” murgilduta, gela bat baino gehiago etxe bat aldarrikatu du “Etxe bat norberarentzat” (Alberdania) liburuan. Idazlearekin Harixa Emoten saioan izan da Usurbilen bizi den idazle bizkaitarra eta bertan aztertu dute emakume sortzaile baten bizipenez eta gogoetez betetako liburua.

Emakume idazlearentzat gela eta soldata propioak aldarrikatu zituen Virginia Woolfek. Idazle britaniarretik harago zoaz zu eta etxe propioa aldarrikatzen duzu. Gela bat ez da nahiko?

Liburuan diodan bezala, ia mende bat igaro da ordutik eta andrazko idazleak agian izendatu du etxean gela bat norberarena; baina, gero, bizitza iragazi zaio zirrikietatik, eta hasieran soilik norberaren gogorako izan behar zuen gela hura "denen onerako" gela bilakatu da.

Zer aldatu da edo zertan hobetu dugu Woolfen aldarrikapen horretatik gaur egunera arte?

Bagoaz leku eta denbora propioak irabazten, baina oraindik "emakume" etiketari lotutako rol asko dago birformulatzeko.

Adinaren eta zahartzaroaren gaia azaltzen da liburuan. Esan izan duzu adin kontuetan ere kristalezko sabaia dagoela; edadismoa hor ere?

Aurreko erantzunarekin lotuta dago: zahar hitza ere birformulatu beharra daukagu, jairo garen unetik ari baikara zahartzen.

Liburu hibridoa dela esan daiteke, badu poesia, badu eguneroko kronika, badu saiakera... Nola definituko zenuke zuk?

Senti-pentsatzeko liburu bat da. Badu poesiatik, badu kronikatik, badu biografiatik, badu aldarrikapenetik, badu kritikatik, badu aforismotik, badu pentsamen-



dutik... Zahartzaroaren umezarora iritsi den andre sortzaile euskaldun autonomo baten saiakera poetikoa da, bere etxe propioarekin batera, hemen eta orain eraikia.

Liburuaren bila joan gabe "atera" egin zela diozu. Nolako izan da sortze-prozesua?

60 urtera bidean, bizitza erdia sormenera emana, oraindik egoera ezegonkorrean jarraitzen nuen, "etxe propiorik" gabe: hori kontatu beharra zegoen eta horixe egin dut. Amaren heriotzak areagotu egin du prozesua.

Nola antolatu duzu liburua?

Sentipen-bizipenetatik abiatu naiz eta libre aritzeko eskatu diot neure buruari. Eta egiazkotasuna bilatzeko. Atera zaidan materialak berak esan dit nola egituratu guztia gero: ekinak eman dio forma bai liburuari bai etxeari.

"Liburua aitzakia da bizitzaz hitz egiteko", diozu. Ez diogu horri denbora nahikoa dedikatzen?

Bizitzaz idazteak (eta hitz egiteak) eskatzen du "liseriketa egiteko" tarte bat hartzea: zer gorde, zer utzi, zer iraunarazi... Baina egunerokotasun zurrunbilotsuan sartuta gaudenean, askotan nahiago izaten dugu, etenik egin gabe, entretenimenduaren bide "txarra" ahaztu...

Euskal-emakume-idazle-sortzaileak zein momentutan zaudete?

Asko gara eta anitzak: lau belaunaldi euskaraz sortzen, nork bere ikuspuntutik, nork bere ahotsetik, nork bere gelatik, nork bere etxetik... Entzule-ikusle-irakurleak ere badoaz hazten, baina, agian, ez erritmo berean: sormenean ere hezi gaitezke, baina une honetako Hezkuntza Sistemak nabarmentzen diren balio eta jokabideek ez dute sormena bermatzeko "baratza" babesten.

Egoera ez dela aldatu diozu, euskal sortzaileen egoerak prekariora izaten jarraitzen duela...

Egoera diogunean zera bereizi behar dugu: lehen baino andre sortzaile-idazle gehiago gaude (alde horretatik egoera bai aldatu da), baina sortzaile izatearen egoera da aldatu ez dena: prekariora izaten jarraitzen dugu. Gizartea antolatuta dagoen moduan sormen kontua beste guztia eratu ondoren antolatzen den alorra da. Nik norberaren etxearekin aldarrikatzen dut sormena izatea gizartea osatzeko arlo bat gehiago; ez entretenimendu hutsa. Auzi politikoa da.

Zeinentzat idazten duzu, irakurleontzat edo zure buruarentzat?

Batak ez du bestea kentzen: nork bere buruarekin idazten dugu eta, beraz, norberaren burua da lehen irakurlea. Hori ezin da ukatu. Baina gero bestea dago:



"Sormenak gizartea osatzeko arlo bat gehiago izan behar du, ez entretenimendu hutsa. Auzi politikoa da"

"Une honetako Hezkuntza Sistemak nabarmentzen diren balio eta jokabideek ez dute sormena bermatzeko "baratza" babesten"

irakurlea. Eta irakurlearengana heltzea opari bat da, eta, beraz, baita erronka handia ere.

Zer darabilzu esku artean? Proiektu berririk?

Langile autonomoa naizen aldetik, errota martxan daukat beti, ez baitaukat lan finkorik, ez oporrik, ez hamalau pagarik. Bestalde, egia da baita ere sormena niretzat bizitza paralelo bat edukitzea bezala dela. Oso osasungarria —eta asegarria— iruditzen zait "daiteke" aditza txertatzea ohikotasunean...

Zer ari zara irakurtzen?

Entseguak, poesia eta haur literatura.

Zer iruditzen zaizkizu irakurle-taldeak? Zer esperientzia da idazle batentzat?

Solasaldiak aukera bikaina dira liburuen bidez bizitzaz aritzeko eta daitekeen guztiaz entrenatzeko, modu aske eta lasaian.



‘Itsaspeko bihotzak’ erakusketa didaktikoa

Genero-berdintasunaren gaia euskal haur-literaturaren bidez jorratzen duen Areto Literarioa otsailaren 26ra arte egongo da Eibarren. Galtzagorri elkartearen *Itsaspeko Bihotzak* erakusketa Andretxean ipini dute ikusgai, eta bertara Eibarko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak joango dira. Hala ere, 5 eta 8 urte bitarteko haurren familiei zuzendutako saioa ere eskainiko dute, martitzenean (otsailak 25) 17:30ean, eta interesa dutenek Interneten formularioa bete beharko dute aurretik. Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta Udal Liburutegiak elkarlanean antolatutako jarduera da.



‘Kokapena denbora errealean’ erakusketa berria

Gaur zabalduko dute *Kokapena denbora errealean* izeneko erakusketa, 19:00etan Portalean. Berez birakusketa dira, baina aldi berean ikusteko sortutakoak. Kanpotik etorri arren honezkero erabat eibartartu diren Ane Xixi eta Viviane Straub dira egileak. Martxoaren 23ra arte egongo da ikustera joateko aukera. Horrez gain, bisitaldi gidatuak eskainiko dituzte otsailaren 24an (16:00etan) eta martxoaren 15ean (18:30ean).



Usartza Txistulari Taldearen kontzertua domeka eguerdian

Udaletxeko arkupeetan emango dute kontzertua Usartza Txistulari Taldekoek, domekan 12:45ean. Aurretik, baina, kalejiran ibiliko dira, herriko kaleetan zehar. Emanaldian joko dituzten piezak honako hauek dira: *Bautista Basterretxe* (zortzikoa, Mold: J.I. Ansorena), *I Contrapas* (J. Uruñuela), *Fandango 1896* (P. Onraitaren erreperitorioa), *Pozpoliña* (J.I. Ansorena), *Kito* (J.M. Gonzalez Bastida), *El Molinero de Subiza* (P. Onraitaren erreperitorioa, Arm: Enrique Aramburu) eta *Pello Joxepe* (J.I. Ansorena).

Urkari taldeak girotutako heavy festa hartuko du Koskor tabernak

Aratosteak direla eta, datorren asteko barixakuan (otsailak 28) kontzertua emango dute Urkari taldekoek Koskor tabernan. Heavy metala egiten duen taldea Aitor Markinak (ahotsa), Xabier Pagueyk (gitarra), Andoni Bilbaok (gitarra), Aitor Izurietak (bateria) eta Josu Agirrek (baxua) osatzen dute, eta kontzertua 20:00etan hasiko da.



‘Historiaurrea’ Untzagan ikusgai

Astelehenaz geroztik “Historiaurrea”, Mogel Isasiko DBH 1-2ko ikasleen erakusketa, bisitatu daiteke Untzaga gizarte etxean. Ikasleek hainbat mural prestatu dituzte eta, marrazki eta bestelako objektuekin lagunduta, sasoi bakoitzari buruzko azalpenak bildu dituzte. Hilaren 28ra arte egongo da zabalik, 12:00etatik 14:00etara eta 19:15etik 21:00etara.



Martitzeneko solasaldiarekin hasiko dira Jardunaldiak

Martitzenean hasiko dira Eibarko XLVIII. Antzerki Jardunaldiak, Coliseon egingo den solasaldiarekin. Irene Hernando aktore eibartarrak aurkeztuta, aurtengo edizioa zabaltzeko ekitaldian Toni Acosta aktorea eta Juan Carlos Rubio zuzendari eta antzerkigilea arituko dira berbetan, “*Harremanak*” izenburuari jarraituta, 19:00etatik aurrera. Sarrera dohainik izango da. Eibarko Antzerki Jardunaldiak ondo ezagutzen dituzte biek, beste batzuetan ere parte hartzen egon dira eta. Oraingo honetan *Una madre de película* komediarekin datoz, eta bi egunetan, eguaztenean eta egunean taularatuko dute, 19:00etan Coliseon. Sarrerak 15 euro balio du (10,50 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



“Don Giovanni” opera eskainiko dute gaur Coliseon

Arratsaldeko 19:15ean proiektatuko dute gaur Wolfgang Amadeus Mozart-en *Don Giovanni* opera. Berlingo Staatsoper Unter den Linden produkzioa, Vincent Huguet eszena-zuzendaritzapean egindako Mozart eta Da Ponteren arteko trilogiaren amaiera eta, aldi berean, gorena da. Huguetek askatasun sexualaren eta horren ondorioen irakurketa egin nahi izan du.




‘Euskal Wikiemakumeok’ tailerra antolatu dute

Wikipedian emakume eibartarren presentzia areagotzeko asmoz, *Euskal Wikiemakumeok* izenburuko tailerra antolatu dute Andretxean, Jabetze Eskolaren eskaintzaren barruan. Parte hartzeko ez da beharrezkoa izango alde aurretik ezagutza informatikorik izatea. Martxoko lau egunetan izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta Wikiemakumeok elkarteke Marisa Barrena Larruzea izango da hezitzailea. Eibarren erroldatuta daudenek 8 euro ordaindu beharko dute, eta 10 euro gainontzekoek. Aurreinskripzioa Udalaren webgunearen bidez egin behar da.

Eguen Zuri Argazki Lehiaketa


Aratosteak ate joka ditugula eta, XXVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du aurten ere Arrate Kultur Elkartek, “besteak beste, karnabaletako oroitzapen fisikoa gera dadin”. Lehiaketarako gaia Aratosteak dira, eta gai horrekin lotutako argazkiekin lehiatu daiteke (ez da beharrez-



koa Eibarkoak edo Eguen Zuri egunekoak izatea). Koloretan zein zuri-beltzean egindakoak onartuko dituzte. Bai argazki-bidalketa bai izen-ematea era digitalean egingo dira: lehiaketara aurkeztu nahi diren argazkiak eguenzuri2025@gmail.com posta helbidean jasoko dituzte, eta bidaltzeko azken eguna martxoaren 16a (domeka) izango da. Hiru onenentzat saria emango dute (160, 100 eta 60 euro, hurrenez hurren), eta lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa zabalduko dute Topalekuan gero.


ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5		9		1			
2					8	9	
	3	1	9				
			7	3		2	6
9	7		2	4			
				2	8	3	
		4	1				7
			5	6	1		



soluzioa


**S
U
D
O
K
U**




soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		7				3	4
8				9			
	4	5	8				7
				4	1		5
		9				4	
4			3	2			
	3				7	9	8
				1			3
	7	2				6	



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A
K**



Otsailak 21 - 27

BARIXAKUA 21

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak, euskaraz, begiraleen laguntzarekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Doan. Urkizu (parkea).

OPERA

19:15 "Don Giovanni" (Wolfgang Amadeus Mozart) operaren proiektzioa. Berlingo Staatsoper Unter den Linden produkzioa. 5,50 euro. Coliseo.

ZAPATUA 22

ARATOSTEAK

09:00 Koko-eskea eta koko-dantzak, Kezka dantza taldearen eskutik. Errebal Plazia (baserritarren postuetan).

10:00/13:00 Aginagako baserrietan: Oregizar (10:00), Arandoaurtena, Arandobarrena, Arandogueneta eta Arandoetxeberri (11:00), Aginagañekua (12:00), Aginako plazan (12:30). **13:30/14:00** Mandiolako Mirafloresgoikoa eta Milatxori baserrietan.

18:45 Koko-mokoen elkarteak, Toribio Etxebarrian (Deportibo parean). Koko-dantzak eta kantuak, Mauxitxa txarangak lagunduta, eta kalejira (Toribio Etxebarria, Zuloagararren, Fermin Calbeton, Untzaga, Toribio Etxebarria).

21:00 Azken koko-dantza eta kantuak. Deportibo aurrean.

ZAPATUKO IPUINA

12:00 "Mozorro jaia", Ana Apika ipuin kontalariaren eskutik. Doan (aurretik izena eman beharra dago). Portalea (areto nagusia).

MUSIKA

17:00 "Gora musika!" haurrentzako kontzertua, Eibarko Udal Musika Bandaren eskutik. Soraluzeko Gaiteroekin eta Eibarko Musika Eskolarekin. 5 euro. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzan umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

URTEURREN-JAIA

Sokoa tabernaren 35. urteurrena ospatzeko. Oihan Vega DJ-ak girotuta. Sarrera: 6 euro, kontsumizioa barne. Sokoa taberna.

DOMEKA 23

MUSIKA

12:30 Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 24

HITZALDIA

18:00 "Resistencia y organización de las trabajadoras del hogar y los cuidados" (gaztelera). Hizlariak: Silvia Carrizo Fernandez eta Merlin Medina Acosta. Sarrera librea. Andretxea.

KANTU SAIO IREKIA

19:00 Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkarteak.

MARTITZENA 25

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Harremanak" solasaldia, Toni Acosta eta Juan Carlos Rubioren eskutik. Aurkezlea: Irene Hernando. Doan. Coliseo.

EGUAZTENA 26

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Una madre de película" (Leona Madre, La Alegria Producciones eta Pentacion). 15 euro (10,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUENA 27

HITZALDIA

10:00 "Europa en la encrucijada ante el caos geopolítico mundial", Juan Jose Alvarezen eskutik. Ikasten-ek antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

EGUEN ZURI

15:15 Eskoletako kalejirak. **17:00** Adolfo Jainagaren trikitixa eskolako ikasleen kalejira. Urkizutik Untzagara. Erromeria, Lisker taldearekin, eta haurrentzako tailerrak, Astixaren eskutik. Untzaga (karpan). **19:00** Mozorro-lehiaketa. Galiziako Etxea.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Una madre de película" (Leona Madre, La Alegria Producciones eta Pentacion). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 26ra arte:
- "Itsaspeko bihotzak", **GALTZAGORRI** elkartearen erakusketa didaktikoa. (Andretxea).

Otsailaren 28ra arte:
- "HISTORIAURREA", **Mogel Isasiko DBH 1-2ko ikasleen artelanak**. (Untzaga Gizarte Etxea).

Martxoaren 23ra arte:
- "Kokapena denbora errealean", **ANE XIXI eta VIVIANE STRAUB** artistak. (Portalea).

Martxoaren 30era arte:
- "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Apirilaren 29ra arte:
- "BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK". (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **22an:** 22:30
- **23an:** 20:00
- **24an:** 19:30

“La red fantasma”
DRAMA



2024/Frantzia /106'
Zuzendaria: Jonathan Millet
Aktoreak: Adam Bessa,
Tawfeek Barhom, Julia Franz
Espioitza/Siriako gerra

2 ARETOA

- **22an:** 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00, 20:00
- **24an:** 19:30

“María Callas”
DRAMA



2024/Italia /123'
Zuzendaria: Pablo Larrain
Aktoreak: Angelina Jolie,
PF Favino, Alba Rohrwacher
Biografikoa/Opera /70 urteak

ANTZOKIA

- **22an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **24an:** 19:30

“Bridget Jones. Loca por él”
KOMEDIA



2025/Erresuma Batua /100'
Zuzendaria: Michael Morris
Aktoreak: Renée Zeilweger,
Hugh Grant, Emma Thompson
Erromantzea/Sekuela

ANTZOKIA

- **22an:** 17:00 (2. Aretoa)
- **23an:** 17:00

“Los exploradores”
ANIMAZIOA



2024/Argentina /88'
Zuzendaria: Gonzalo Gutiérrez
Abenturak/Umeentzat

Felix Bergara Zurutuza apaiza
12. URTEURRENA (2013/02/22)

“Ez zaitugu ahazten,
Felix. Gure artean
jarraitzen duzu”



Haren aldeko
URTEURREN MEZA
ospatuko da domekan
(otsailak 23), 10:30ean,
AZITAINGO parrokian.

- M' CARMEN HAREN IDAZKARIA, SENIDEAK, JASOKUNDEKO
ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK -



**Amets
Martin
Bastida**

3. URTEURRENA
2022/02/22

Olerki laburrenaren
bertsorik politenak
bi hitz baino
ez ditu:
“MAITE ZAITUT”

ZURE ARREBA
ETA ZURE AMA

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **MARA!** 11 urte egin dozuz eta... Zoriontsu izan! Asko maitte zaittugu. Musuak famelixaren partez.



Zorionak, **IÑAKI,** txapeldun! 5 urte haundi beteko dozuz domekan! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez



Zorionak, **XABI,** mutil haundi, bixar 8 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **ALBA,** 9 urte betetzen dozun honetan. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **XABAT,** hillaren 25ian 7 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NURA!!** Hillaren 14an 8 urte bete zendua-zen eta! Musu eta besarkada erraldoi bat ama, aita eta Maiaren partez.



Zorionak, **JON!** Atzo urtetxua bete zenduan eta. Segi holan, gure bizitzari irribarria ipintzen. Maitte zaittuen zure famelixaren partez.



Zorionak, **IKER,** hillaren 26xan 12 urte beteko dozuz eta. Ondo ondo pasa eguna!!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IBAI** Aristondo, gaur 7 urte beteko dozuz eta. Egun magikua izan! Hainbeste maitte zaittugun gurasuen partez.



Zorionak, familia! Hau da gure urtebetetze astia! 18xan **AMA,** 21ian **PAUL** eta 23an **AITA.** Musu haundixa eta besarkada potolo bat amatxoren partez.



Zorionak, **ARATZ** eta **MARKEL,** gaur 5 urte betetzen dozuez eta. Etxekuok poztasun eta energiaz beterik jarraitzia opa detsuegu. Besarkada asko famelixaren partez.

ek! Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
 publizitatea@etakitto.eus

Izadi
LORADENDA
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURALA ETA LEHORRAK
 EZKONTZETARAKO LORAK
 ZENTROAK
 ERRAMUAK
Enkarguak etxera

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskakerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 653075865.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, eta baita maskotak ere. 602626391.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 646778839.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxean laguntzeko. Orduka. Esperientzia. 680526228. Nuri.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Erreferentziak. 632288100.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta gauez ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta gauez ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta dendari bezala. 613391576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 747444786.
- Neska eskaintzen nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 626444649.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Erizain-laguntzaile eta arreta sozio-sanitario tituluekin. 632938326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. 617571210.

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa), garbiketarak egiteko eta etxean laguntzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. Esperientzia. 632355103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 63722318.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 611215176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602613594.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko, umeak zaintzeko eta tabernan jarduteko. 641910253.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 620757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 614104599.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 624545008.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 633365036.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta garbiketarak egiteko. Externa. 631907532.

4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako. Jardun partziala, adostu beharrekoa. Bidali CV: hortz-klinika.4@gmail.com
- Emakumea behar da adin txikioko menpekoa zaintzeko.

- Sozio-sanitario titulua edo antzekoarekin. Bidali CV: em-pleoeibar@gmail.com
- Kamarera/o behar da jatetxe batean. Zapatu arratsalde eta gau eta domeka osoa libre. 627778980. Feli.
- Durangoko hortz-klinika batek higienista behar du. Jardunaldia adosteko. Interesatuek bidali CVa: rrrhpersonal.clinicadental@gmail.com
- Odontologo orokorra behar da Mendaroko Hortz Klinikara batean. Jardun partziala adosteko. Euskaraz jakitea eta odontopediatrian ezagutzak izatea baloratuko da. CV-a: odonto2025@gmail.com
- Ilea zaintzaile behar da Elgoibarren. Jardun erdirako edo osorako. 634261485.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Baimontzirako aulki birakaria oparitzen da. 615761830.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clinica estetica

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Auzpejia gaitzetsua
- Botoxak

Kirurgia
- Betsakak, belanak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Okulistak



Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

PLA. 20413

Pasa Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Psikologoak



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA
HAUR, NERABE ETA HELDUENAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Tonibio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Moutragon Lili
GOKOZ EDA ARRAZALDEZ
Urkiizu, 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023


ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kalegatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kalegatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kalegatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



PODOLOGOIA


Maidor
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kalegatu zbkia.



943-206776

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

EZ PENTSA

BIZI EZAZU!



ZATOZ PISU PILOTUA IKUSTERA

Obra berriko etxebizitzak:

Gimnasioa | Gourmet aretoa

Garajea | Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com

Calbeton, 6

Koskor

Otsailak 28
KOSKOR EGUNA

ETORRI GURE
TABERNA
MOZORROTURIK
IKUSTERA!

arratsaldez KONZERTUA eta gauetz GO-GO jai goittoa